


*Jolastu eta ikasi
Elkanorekin*

Espainiara itzultzea



Jolastu eta ikasi Elkanorekin ESPAINIARA ITZULTZEA

Bizitako guztiak espedizioko buruzagi bihurtu ninduten. Ordurako, ontzi bakarra gelditzen zen, Victoria, eta ni nintzen bertako kapitain.

Espeziak leporaino beteta zihoan ontzi hartan gurutzatu genuen Indiako Ozeanoa, eta Ekaitzen lurmuturrera heldu ginen. Gaur egun Itxaropen Oneko lurmuturra izenez ezagutzen dugun hartan, olatu izugarriak jasan behar izan genituen, ia-ia ontzia suntsitu zigutenak. Jende asko galdu genuen. Bidaia honek gorde zigun azken proba latza izan zen... edo hori uste genuen.

Lurmuturra gainditu ondoren, beste bi hilabetez jarraitu genuen, iparralderantz, Afrikako kontinentea lurrik ukitu gabe gurutzatuz, Portugalen kontrolpeko portuak saihesteko. Bestela, preso hartuko gintuzketen, geure abentura hortxe bukatuko zen, eta horren lan gogorraz lortutako espeziak konfiskatuko zizkiguket.

Hala ere, gose ginenez, eta akituta geundenez, Cabo Verden gelditu behar izan ginen, portugaldarren mendean bazegoen ere. Susmorik izan ez zezaten, Amerikatik zetorren espedizio baten plantak egin genituen, eta kosta parean bota genuen aingura, portura sartu gabe.

Tripulazioko norbaitek, ordea, Magallaesen espedizioaren parte ginela esan zuen, eta ihes egin behar izan genuen, hainbat ontzi portugaldar atzean genituela. Han bitxikeria batez konturatu ginen: munduaren inguruan mendebalderantz nabigatuz gero, egun bat irabazten zen.

Azkenik, ihes egitea lortu genuen, eta irrikatzen genuen helmugara heltzea, abiatu eta hiru urtera. 1522ko irailaren 6an, Sanlúcar de Barramedara heldu ginen. Abentura sinestezin hartan abiatu ginen 239 gizonetatik 18 bakarrik itzuli ginen. Victoria ontzian ekarri genituen espezien balioarekin espedizio luzearen gastuak estali genituen, eta koroari irabaziak ere ekarri zizkion.

Garrantzitsuena da, ordea, gure balentriak munduaren ikuspegia eraldatu zuela guztiz, merkataritza bide berriak ekarri zituela, eta garai hartan jendeak oraindik sinesten ez zuen zerbait baieztatu zuela: Lurra biribila dela.

